

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Lehenik eta behin, bizikleta konponduko dugun kasetak eraikitzeko materiala beharko dugu. Horretarako, egurra, iltzeak eta torlojuak erabiliko ditugu. Kaseta zurezkoa izango da, material honen aldeko apustua egin dugu, kabina honetarako adreiluak gehiegizkoak dirudite guretzat, egurra maneiatzea eta lantzea errazagoa da eta hori da gure kabinarako nahi duguna, sinpletasun absolutuenarekin erabilgarritasun maximoa.



Egurrezko oholak aurretik aipatutako iltze eta torlojuekin elkartuko dira. Lan hau burutzeko, zulagailuak eta mailuak beharko ditugu.



Enpresaren sortzaileok leihoak jartzeko hormetan bi zulo irekitzen saiatzen den ideia ekologiko eta jasangarriagoaren alde egin dugu apustu. Horrela, kasetan argi naturala dagoela ziurtatuko dugu, ingurumena kutsatsen duen bonbilla bat erabili beharrean. Leihoen materiala beira izango da.



Kasetaren barrualdeari dagokionez, ingurunea "naturalagoa" bihurtzen duen lurzorua aldeko apustua egin dugu; belarrezko lurzoru faltsua jartzea erabaki dugu.



Baliabide intelektualen inguruan, bizikleten mekanika ezagutzen duten langileak behar ditugu, bezero bat kasetan azaltzen den momentuan langileak bere beharrak ahalik eta hoberen asetzeko eta bezeroak zerbitzuarekin pozik egoteko. Trebetasun mekanikoez gain, gure langileek trebetasun sozialak izatea eta atseginak izatea nahi dugu, badakigu zerbitzu bat infinituki hobea dela zerbitzatzen zaituen langilea pertsona atsegina denean eta hori da gure zerbitzurako nahi duguna.

